


## BAT EGIN GUREKIN- KOLABORATU
## ASÓCIATE - COLABORA

Zure eskua behar dugu
Zure laguntza behar-beharrezkoa zaigu biktimei laguntzen jarraitu eta kanpainak, egitasmoak eta ikerketak egiteko.

Necesitamos tu mano
Tu colaboración es imprescindible para seguir apoyando a las víctimas, realizar campañas, proyectos e investigaciones.

Ekarpenetarako / Aportaciones

**ES30 2095 5013 7910 6198 0313**

Bulego nagusia / Oficina Central
Duque de Mandas, 36-38.
Donostia

943 32 18 11

Informazioa, aholkularitza eta salaketaren bulegoa.
Oficina de Información, Asesoramiento y Denuncia (OIAD)
P. Zarategi, 100. - Txara 1
Donostia

(+34) 943 24 56 27
943 24 56 26

10:00 a 14:00

SOS Racismo / SOS Arrazakeria

@SOS_Arrazakeria

SOS
RACISMO
ARRAZAKERIA
www.mugak.eu



# GIZA ESKUBIDEEN AGONIA

Hemen dituzue, banan-bana, hogeita hamabost mila bostehun eta laurogeita hamazazpi (35.597) izen beste hainbeste pertsonenak, zeintzuk Europako Batasunera iritsi nahian hegoaldeko mugan hil direla modu dokumentatuan ziurta daitekeen.

35.597 haur, andre eta gizon Europa Gotorlekuak eraikitako mota guztietako mugek hildakoak, Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalak onartua duen eskubide bat oztopatzeko: migratzea.

Historiarekiko, pertsonekiko eta beren asmo zilegiekiko arduragabe jokatzen ari diren botere ekonomiko eta politikoen seta iraingarriaren biktimak dira. Orotariko tresna militar guztiak erabiltzen dituzte horretarako (Frontex), Itsas Zuzenbideak arautzen dituen betebeharrei muzin eginda, eta GKEen salbamendu humanitarioa oztopatzen dute, ukatzen baitiete itota hiltzetik salbatutako pertsonak lehorreratu ahal izatea, edo eta itsasoratzea ere debekatzen diete, Espainian Aita Mari eta Open Arms ontziekin gertatu bezala. Afrika iparraldeko gobernuak estu hartzen dituzte, migratzaileen eta asilo eta babes bila dabiltzan pertsonen irteera eragotzi dezaten, edo eta agintari horien eskuetan uzten dituzte, bai eta Libiako talde armatuen eskuetan ere, espetxeratuak diren eremuetan darabiltzaten izugarrikeria eta esklabismoa NBEak salatu baititu.

Ezin dugu sorgor jarraitu. Izugarria da Barbarie hau normalizatzea. SOS Arrazakeriatik behin eta berriro aldarrikatzen dugu gure haserrea eta arduradunak seinalatzen ditugu: Europako Batasuneko eskandaluzko migrazio politika kriminalak erabakitzen dituzten horiek. Hamarnaka urte dira erabaki horiek Giza Eskubideen agonia eragiten ari direla.

Irudikatzen al duzu pobreziak edo eta jazarpenak herrialde ziurrago batera bultzako bazintu zu eta zure familia? Irudikatzen al duzu heriotza gibelean duzula eta ate guztiak ixten dizkizutela? Irudikatzen al duzu zerrenda honetako beste izen bat gehiago izatea?

Exijitu dezagun sarraski politika hauek amaitzea!




# LA AGONÍA DE LOS DERECHOS HUMANOS

Aquí tienen, una a una, las treinta y cinco mil quinientas noventa y siete (35.597) personas de las que, de forma documentada, se tiene constancia que han muerto en la frontera sur, tratando de acceder a la Unión Europea.

35.597 niños y niñas, mujeres y hombres acribillados por la suma de fronteras de todo tipo que levanta la Europa Fortaleza para impedir un derecho recogido en la Declaración Universal de los Derechos Humanos. Migrar.

Víctimas del ignominioso empeño de los poderes económicos y políticos profundamente irresponsables con la Historia, con las personas y con sus legítimas aspiraciones. Que utilizan para ello todo tipo de instrumentos militares (Frontex) incumpliendo las obligaciones que les impone el Derecho Marítimo e impiden la labor de salvamento humanitario de las ONG, negándoles la posibilidad de desembarcar a las personas que salvan de morir ahogadas, e incluso prohibiéndoles zarpar, como es el caso en España del Aita Mari y del Open Arms. Que presionan a los gobiernos de los países norteafricanos para que impidan la salida de migrantes y personas en busca de asilo y refugio o les entregan a esas mismas autoridades e incluso a los grupos armados en el caso de Libia, denunciados por la ONU por el horror y esclavitud que practican en los campamentos donde son encerradas.

No podemos permanecer impasibles. Es un horror normalizar esta Barbarie. Desde SOS Racismo levantamos una y mil veces nuestra indignación y señalamos a los culpables: quienes adoptan esas decisiones escandalosamente criminales de las políticas migratorias de la Unión Europea. Decisiones que llevan provocando la agonía de los Derechos Humanos desde hace décadas.

¿Te imaginas que la pobreza o la persecución te empujaran a buscar un destino más seguro para ti y tu familia? ¿Te imaginas dejar la muerte a tus espaldas y que te cerraran todos los caminos? ¿Te imaginas ser un nombre más de esta lista?

¡Exijamos el fin de estas políticas de exterminio!